

Zu barik nekez izango garelako gu



San Fausto jaietan guka aritzeko txokoa izango dugu

AURTEN, GUKAKO ERAGILEOK IZANGO DUGU TXUPINA JAURTITZEKO OHOREA

Ni bat baino gehiago dira gu. Eta gu bat baino gehiago gara gu. Leku berera heldu gura duten bide desberdinen urratzaileak gara. Bakoitzak bere esparruan eta bere lanetan dihardugu, baina helmuga bera daukagu.

Gu gara zu eta gu, eta Ibaizabal ikastola, AEK, EHE, Berbaro, Anboto eta Plateruena. Batasunak indarra omen dakar eta badakigu nor hartu bidelagun. Euskaraz

bizi gara, eta horrek batzen gaitu. Bideak egin gaitu: izan ere, 25 urteko bidea ez da alferrikakoa izan, eta ospatzeko tartea izango dugu jaietan ere. Gutarrona izango da aurten txupinazoa, euskarazkoona. Euskaraz bizi, pentsatu eta jai egiten dakigunona. Eta, zu ere bertan gura zaitugu. Zu barik nekez izango garelako GU.

Badakigu askorentzako urte hasiera edo ikasturte hasiera izaten dela kon-

promiso eta helburu berriak ezartzeko data egokiena. Guk jaiak aprobetxatzen ditugu hemendik aurrera zer egiten jarraitu gura dugun berresteko. Eta, aurten ere, heldu da gu denon indarrak batu eta GUKA aritzeko unea: itzali ditzatela argiak eta gora musika, nik solomo gazta eta besteak hirugiharra, Alaitz eta Maider berriz? Eta trena galtzen duen beste bat... Txosna bete jende eta txosna bete berba. Hori gara GU.

Heldu dira San Faustoak, eta guk beso zabalik hartu ditugu. Txosnagunean hantxe egongo gara gure kolore arrosako pankarta, argi eta esaldiekin. Zuen zain, GUKA zuekin aritzea plazera baita beti!

Udalekuetatik bueltan, motxila bete abentura eta esperientzia berri piloa

la 300 haur eta gazte hurbildu dira gurera, Olgetanekin eta gure hezitzaileekin primerako udalekuak bizitzeko. Eta, jakina, horrela izan da.

Durangoan, Olgetan udaleku irekietatik igarotako haurrak ederto ibili dira, 5 zentzumenekin eskulanak eta jolasak eginez. Gainera, egindako ir-

teeretan, hango eta hemengo txokoak ezagutzeko aukera izan dute, baita Olgetan gure maskotarekin kantan eta dantzaz aritzeko ere.

Nafarroan ere ibili gara, Mendigorria girotzen, 8-10 urte bitarteko gaztetxoekin. Igerilekuan plisti-plasta; sukaldari fin eta trebe bihurtzeko, pastel, kroketa eta taloak eginez; piratak lez altxorraren bila, batera eta bestera; Sendaviva jolas parkean, animaiia eta atrakzio artean.

Talde handi batek Araba aldera egin du txangoa. Ozaetan 12 egun egin ditugu, Butanito izeneko astoa zaindari duen aterpetxean. 3. zikloko gazteekin abentura-ekintza mordoa egin ditugu: piragua, tirolina, eskalada, arku-jaurtiketa... Gebarako gaztelua ezagutzeko

aukera izan dugu, eta Ozaeta Awards bideoklip txapelketa ere egin dugu.

Eta, aurtengo Udaleku Ibiltaria Gipuzkoan zehar ibili da, kostaldean nahiz barnealdean. 13-15 urte bitarteko gazteekin trenez irten ginen Durangotik, eta Orion hasi genuen abentura. Ikastola, frontoi, borda eta gaztetxeetan gauak eginda, Asteasu, Ernio, Aia, Zarautz eta Zumaia ezagutzeko aukera izan dugu. Olinpiadak Asteasun; espeleologia Ernio mendiko kobazuloan barrena; surfa eta kale-antzerkia Zarautzen; Zumaia Express gymkhana eroa. Barre dezente eta harreman estuak 12 egunean.

Pena handiz bueltatu gara etxera, Euskal Herriko hainbat txokotan bizi izandako uda ahaztezin honen ostean. Motxila bete abentura eta esperientzia berri pilo bizi eta gero, bagabiltza datorren udarako motorrak berotzen.



HEZITZAILEAK BERBETAN...



Pello Gorritxategi

OLGETANEKO HEZITZAILEA

Uda honetan, lehenengoz jardun dut begirale Berbaroren Olgetan udalekuetan, eta, egia esan, oso eroso eta gustura sentitu naiz. Esperientzia

handiko begiraleek asko lagundu dute udaleku dinamiko eta entretenigarriak egiten, eta berrioi ziurtasun handia eman digute. Bestetik, jarduera guztiak umeen nahi edo beharrezaneta pentsatuta egin dira, eta umeek ere jakin dute hori estimatzen. Beraz, oso pozik geratu gara egindakoarekin. Umeekin oso momentu onak pasa ditugu, eta erakutsi egin diegu euskara eskola-orduetatik harago joan daitekeela.



Meritzel Etxagibel

GAZTE ARLOKO LANGILEA

Udalekuetan harreman estuak sortzen dira umeen eta

hezitzaileen artean. Aurten ere nabari izan dira harreman horiek, benetan gustura aritu baikara guztiok elkarrekin. Gainera, harreman hau ez da udalekuetara mugatzen, urri inguruan arratsalde ederra igarotzen baitugu Plateruenean, berriro denok elkartzeko eta udalekuetan bizitakoa gogoratzeko, olgetan zein jaten.



Maialen Bildosola

OZAETA ETA
IBILTARIKO HEZITZAILEA

Orain dela 3 uda izan ziren nire lehenengo udaleku itxiak. Ordurako, irekietan hainbat uda egon izan nintzen, baina 2012ko udan esperientzia berri baten aurrean aurkitu nuen nire burua. Urduri eta lasai. Urduri, niretzako berria zen zerbaiten aurrean

nengoelako, eta lasai, itzelezko begirale talde batekin bizi behar nuelako esperientzia berri hura.

11 egun iraun zuen udalekuak, eta oraindik gogoratzen dut etxera itzuli nintzeneko momentua. Motxila ohe gainean utzi, eta hutsik sentitzen nintzen, ez neukan zereginik! Umeen falta igarri nuen, begirale gelako solasaldi luzeak, gauetako okerkeriak... Baina egoera guztietatik gauza positiboak atera behar dira, eta pozik jarri nintzen. 11 egunean familia handi bat eratu genuelako, eta itzel pasatu genuelako.

Geroztik, udako tartetxo bat udaleku itxiei eskaintzen diet. Hori bai, nahiz eta denbora pasatu, bueltako eguneko hutsune sententzia ez dit inork kentzen, urteroko gauza bilakatu da. Hain ondo igaro eta gero, gaitza da sententzia horri aurre egitea.

Mankomunitatearen Euskara Zerbitzua Iortu dugu

GOIZANE LARRAMENDI IBILIKO DA EUSKARA-TEKNIKARI

Goizane nauzue: abadiñarra eta, orain, baita berbarotarra ere. Ekainean, dei bat jaso nuen Berbarotik. Mugikorraren pantailan zeinek deitzen zidan ikustean, udalekuetarako lana eskainiko zidatela izan zen burutik pasatu zitzaidan lehen gauza. Sorpresa ederra hartu nuen Maitek Durangaldeko Mankomunitateko euskara teknikari lanpostura aurkeztu gura nuen galdetu zidanean! Izan ere, Mankomunitateak lehiari jarri zuen Euskara Zerbitzuko postua, eta, lehiaketara aurkeztea erabaki ostean, hautagai bila zebiltzan Berbaron. Berehalakoan eman nuen baietza, birritan pentsatu barik.

Azkenean, lehiaketa irabazi, eta irailan hasi nintzen beharrezko ilusio handiz.

Berbarorekin orain dela urte bi aritu nintzen lehen aldiz.

“Polita da erronka, eta gogotsu ekin diot lanari”

Mendigorriako udalekuetara joan nintzen sukaldari. Aukera bikaina izan nuen Berbaro hobeto ezagutzeko, baita gazteen egiten duten lana bertatik bertara jarraitzeko ere. Entsalada eta porru-patata asko prestatu nituen, gaztetxoei euskararen bidean indarrak emateko.



Oraingoan bestelako osagaiak ditut esku artean; helburuak, ordea, antzerakoa izaten jarraitzen du: Durangaldean, gazteen, umeen zein helduen artean euskarari behar duen bultzadaxoa ematea. Polita da erronka, eta gogotsu ekin diot lanari. Berbaroko lantaldean esku zabalik hartu naute, eta laguntzeko prest egoten dira beti. Gainera, Fernanek eta

Goitzek laguntza teknikoa eskaintzen didate behar duan guztietan, esperientzia zabalaita baitute Durangoko Udaleko Euskara Zerbitzuan. Berbaro Mankomunitatean egotea oso estrategikoa da, begirada eskualde guztira zabaltzea ahalbidetzen digu-eta. Aprobetxa dezagun aukera Durangaldea euskalduntzeko!

Berbalagun

Ehun bat lagun elkartzen gara Durangon euskara praktikatzeko helburuaz. Durangaldean berrehun. Nahasian

batzen gara euskara etxetik dakargunok eta etxetik kanpo ikasi dutenak, talde txikietan, konpleju barik. “Euskaltegietan

ikasi dutenentzako aberasgarria da bertoko euskaraz egiten duen batekin berba egitea”. Hori dio Ziortzak.

Aurten, taldeak batzen hasi orduko, Mintzodromoan jarduteko aukera emango digu-

te. Plateruena Kafe Antzokian hiru taldetan batu eta hiru gairi ekingo diegu saio bitan: goizean 10:00etan eta arratsaldean 18:00etan.

Berbarotik gonbidapena bidaltzen dizuegu animatu eta izena eman dezazuen, herritar denei dago-eta zuzenduta.

10 urte bete zituen iazko ikasturtean Berbalagun egitasmoak Durangon, eta 13 eskualdean. Durangaldeko AEK, Durangoko Udal Euskaltegia, Hizkuntza Eskola eta Berbarok antolatzen dute egitasmoa Amankomunazgoarekin eta udalekin elkarlanean.

Euskaraz ondo badakizu, eta ikasi edo berba egin nahi duenari laguntzeko prest bazaude, zatoz Berbalagunera!

Izena emateko,

Deitu **639 400 786** telefonora edo Berbarora, **946 201 918** Idatzi [durangaldea@aeak.org](mailto:urangaldea@aeak.org) helbidera.



PLATERUENA, ... eta urte askotarako!

Plateruenak hamar urte beteiko ditu urriaren 28an. Sasoi seinatu eta aldakorrotan, urteurren osoa daramagu zilarberritzen: gogoeta egin dugu Durangaldeko sortzaile eta elkarteekin kultur egitasmoaz, eta herri-eragileen parte har-

teza hobetzeko lan-taldeak sortu; Durangoko Udalarekin ere partekatu dugu hausnarketa hori, kultur gunearen kudeaketa bideragarri izan dadin baldintza hobekak adosteko. Orain herritar guztiei dei egiten diegu Plateruenaren proiektuan par-



te hartzeko, kultur egitasmoak gauzatzeko borondatezko lanean jardunez zein kultur gunearen etorkizuna ziurtatzeko diru ekarpena eginez.

Diru ekarpen eta borondatezko lan kanpaina, bada, martxan da. Komunikabideetan agertu da eta kalean ere informazio mahaiak ipintzen hasi gara.

- Zergatik? Azpiegitura eraikitzekeo milioi eta erdi euroko zorra hartu genuelako gure gain, eta bankuei oraindik 250.000 euro itzuli beharrak bideragarritasuna kolokan jartzen duelako.

- Zertarako? Ostalaritza zerbitzuarekin batera bideragarria den Plateruenaren eguneroko kultur jarduera oparoarekin jarraitzeko, elkarte eta sortzaileekin batera.

- Zenbat? Zorra bost urtean ordaintzeko, urtean 50.000 euro ziurtatzeko besteko laguntza eskatzen dugu; baita egun eta ekintza jakinetan bolondres jardutea ere.

- Noiz? Kuota ordaintzeko konpromisoa bost urtekoa izango da, 2015ean hasita 2019a arte;

bideragarritasuna ziurtatzeko beste kuota 2014 amaierarako lortu gura dugu.

- Non? Webgunean argibideak jarraituz, eskuorriko kupoiak bete eta Plateruenean utziz, edo aurrez aurreko arreta-bulegoan (asteazken, 11:00-13:00 / 18:00-20:00)

-Nota?

A Ekarpena: 60 euro urteko, bost urtean.

Hobariak: 2 menu txartel eta ikuskizunetarako 2 sarrera.

*Kooperatibako bazkide lehen urtetik.

B Ekarpena: 120 euro urteko, bost urtean.

Hobariak: 4 menu txartel eta ikuskizunetarako 4 sarrera.

*Kooperatibako bazkide lehen urtetik.

C Ekarpena: 5 bolondres egun urtean.

Hobariak: 2 menu txartel eta ikuskizunetarako 2 sarrera.

Oharra:

Jakizu, bazkide, azarotik aurrera Plateruena telefonozko deiak egiten hasiko dela laguntzaileak batzeko asmoarekin.

Txindurrien moduan

Azken boladan, sarritan entzun dugu militantziaren etorkizuna kolokan dagoela. Horixe diote herrigintzaren goraldia bizi izan zuten askok: jada ez dagoela mugimendurik, egungo gazteria eroso bizi dela, lehengo garaik oraingoak baino hobekak zirela, inork ez duela ezer egiten, horrela ez goazela inora... Baina, begiratu diezaiozun gure inguruari. Jendea guztiz eraldatu da, herri-mugimenduen ereduak aldatu egin dira, eta, herrian parte hartzeko moduak ere bai.

Gure lantaldea dugu horren adibide argia. Nork esango zukeen, duela hiru bat hamarkada, herrigintza bizibidea izan zitekeenik? Eta, hara, hainbat liberatu gabiltza jo eta su la-

Militantzia: bakoitzak ahal eta nahi beste ematea

nean, zuen eta gure proiektua aurrera atera nahian.

Hala eta guztiz ere, Berbaroren lantaldea ez dugu liberatuok bakarrik osatzen. Bazkideak, hezitzaileak, gazteak, gurusoak, euskaltzaleak, *Anteboto* eta Plateruenako lankideak, GUKAko lagunak... auzolanean gabiltza, Durangon euskarak dagokion lekua har dezan.

Denok ematen dugu norberaren zati txiki, ertain, handi edo itzel bat gure kausaren alde, euskararen alde, eta, az-

ken finean, hori da militantzia. Bakoitzak ahal duen eta nahi duen beste ematea. Arian-arian, puzzlea osatzen goaz, bata bestearen hutsuneak beteta. Era zabal eta malguan, baina konpromisoarekin.

Ikusi al duzue inoiz txindurri-talde bat lanean? Harrigarria da, benetan, zelan koordinatzen diren. Hain txikiak eta hain indartsuak. Hori bai, bakarka nekez lortuko lukete ezer. Lantaldeari zor dizkiote beren merituak. Erreginak, langileak, soldaduak, talde berezituak... kolonian, bakoitzak bere zeregina du, eta behar bezala bete du.

Gure "kolonian" ere, bakoitzak berea dakar. Batzuek, zuen denbora eskaintzen diguzue. Beste askok diruz laguntzen duzue.

Eta, beste hainbatek gorputz

eta arimaz. Auzolanean aritzea da kontua. Txindurrien moduan. Zenbat eta gehiago, hobek.

Izan ere, militantziaren gainbeheraz eta krisiaz hausnartzen dugun honetan, edozein laguntza da esker tzekoa eta premiazkoa. Nahi duzue; nahi duzun beste. Baina, ekin, txindurrien moduan.

Ordainetan, herrigintzak asko emango dizu. Motibazioa, erronkak, poztasunak. Zerbaiten parte izatearen sentimendua. Jendartea aldatzeko eta bizteko nahia. Durango euskalduna lortzeko grina.

Eta zu, lagun, zer edo zer emateko prest zaude? Bada, zatoz! Gutxi zein asko, txindurritegi honen mesederako izango da.